

II. JABETZE ESKOLA

'DESCENTRANDO MIRADAS: INTRODUCCIÓN AL FEMINISMO DE(S)COLONIAL PARA TRANSFORMAR LUCHAS LOCALES' HITZALDIA

Hitzaldi honen helburua feminismo de(s)kolonialaren oinarriak azaldu eta feminismo eurozentrikoari egiten dion kritika ezagutaraztea da, batez ere "emakumeen" esperientziak unibertsalizatzeko joera; joera horrek arrazismoa, kapitalismoa eta beste botere-egitura batzuk ikusezin bihurtzen baititu, beste zapalkuntza- eta erresistentzia-historia batzuk sortuz.

DINAMIZATZAILEA: Luciana Alfaro
DATA ETA ORDUA: Otsailak 19, 18:00
KOKAPENA: Arkupeko bigarren solairua
HIZKUNTZA: Gaztelera

'BOTEREA, AHIZPATASUNA, PERREOA' TAILERRA

Tailer honen helburua da leku seguru bat sortzea, zeinetan 'Booty Dance'-en potentziala deskubritu ahal izango dugun, ahaldunduago sentitzeko tresna gisa. Sexualki esplizituak diren dantzen historia, kultura eta mugitzeko erak ezagutuko ditugu, hala nola Twerk, Dancehall Queen eta Perreoa, begirada feminista eta antirrazista batetik.

DINAMIZATZAILEA: Ines Lasagabaster
DATA ETA ORDUA: Maiatzak 10, 10:00-13:00
KOKAPENA: Arkupeko dantza gela
HIZKUNTZA: Elebitan

'HETERO' LIBURUAREN AURKEZPENA

Uxue Alberdik bere azken liburua aurkeztuko du, Oihana Aranarekin batera. Araua eta arrakala. Bien arteko tentsioan ageri zaizkigu ipuin hauetako protagonistak. Emakumezkoak dira ia denak, eta gizonez ari dira, nagusiki. Haiak euren gorputzetan, memoria afektiboan eta egunerokoan utzitako arrastoez. Gizonekiko espektatibez eta dezepzioez: nean bertan egin eta esan ez ziren horiez.

DINAMIZATZAILEA: Uxue Alberdi eta Oihana Arana
DATA ETA ORDUA: Martxoak 12, 18:00
KOKAPENA: Zaraia Aretoa
HIZKUNTZA: Euskara

'PLURALEAN HOBETO: EZBERDINTASUNETIK DIBERTSITATERA' HITZALDIA

Zer da ez-binarismoa? Zer esan nahi du asexuala izateak? Zein sexu-orientazio daude? Hitzaldi honetan, sexu-aniztasuna zer den aztertuko dugu sexologiaren esparrutik, informazio eguneratua emanez eta hura ulertzeko egin diren aurrerapenak baloratuz.

DINAMIZATZAILEA: EKUA
DATA ETA ORDUA: Maiatzak 15, 18:00
KOKAPENA: Arkupeko bigarren solairua
HIZKUNTZA: Euskara

'HILEKOAREN ZIKLOA BERREZAGUTZEN' TAILERRA

Saio parte-hartzaile honetan, norberaren ziklotasunaren kontzientzia hartzea da helburua. Hilekoaren zikloaren funtzionamendua landuko da eta ondoeza eta mina ezberdintzen ikasiko da. Odola biltzeko metodoak ere ezagutuko dira eta autoezagutza landuko da.

DINAMIZATZAILEA: Idoia Sanchez (Xarma)
DATA ETA ORDUA: Martxoak 26, 17:00
KOKAPENA: Arkupeko bigarren solairua
HIZKUNTZA: Euskara

'PRODUKTU EROTIKOAK EZAGUTZEN' TUPPERSEX TAILERRA

Tailer ez misto honen helburua norberaren anatomia ezagutzea, aurreiritziak alboratzea eta produktu erotikoetara gerturatzea izango da. Alderdi teorikoa ere landuko den arren, alderdi praktikoa izango da tailerraren muina, materialak probatuz eta ikutuz.

DINAMIZATZAILEA: Idoia Sanchez (Xarma)
DATA ETA ORDUA: Ekainak 4, 17:00
KOKAPENA: Arkupeko bigarren solairua
HIZKUNTZA: Euskara

'LAS DISTINTAS DIMENSIONES DE LA LGTBI+FOBIA: QUÉ SIGNIFICA SER VISIBLE, PRINCIPALMENTE PARA LAS MUJERES LESBIANAS' HITZALDIA

LGTBI+fobiari buruz hitz egiten dugunean, gutxitan pentsatzen dugu gaur egun EAEn bizi diren LGTBI+ errefuxiatuek nolako LGTBI+fobia pairatzen duten haien jatorrizko herrialdeetan eta baita harrera-gizartearen ere. ALDARTEK ikerketa bat egin du LGTBI+fobiak sei lurraldetan (Kolonia, Peru, Honduras, Maroko, Senegal eta Euskal Herria) duen dimentsioa aztertzeko, eta kontuan hartu du, lehentasunez, zer esan nahi duen ikusgai izateak, batez ere emakume lesbianentzat.

DINAMIZATZAILEA: Aldarte
DATA ETA ORDUA: Apirilak 10, 18:00
KOKAPENA: Arkupeko bigarren solairua
HIZKUNTZA: Gaztelera

IZEN EMATEA

Orokorrean ekintza guztien sarrera librea den arren, tailerretan izena eman behar da. Beraz, "Hilekoaren zikloa berrezagutzen" tailerrean, "Boterea, ahizpatasuna, perreoa" tailerrean edo/eta "Produktu erotikoak ezagutzen" tailerrean izena emateko idatzi honako email honetara:

berdintasuna@aretxabaleta.eus

Izena emateko azken eguna: **Otsailak 28**